

Kaixo neska mutilak!

Norbaitek pentsa dezake adinez txikia izanda herriko erabakietan ez duzuela parte hartzerik. Egia da hauteskundeetan ezin duzuela oraindik bozkatu, baina Eskola Agenda 21 zuen iritziak ezagutzeko eta zuekin zenbait ekimen adosteko bide bihurtu da. Eta, lehengoan azaldu zenuten bezala, hori agerian gelditu da 2003tik hona elkarrekin gauzatu ditugun ekimenetan.

Goazen ba 2014-2015eko ikasturtean **PROPOSATUTAKOIA** komentatzera:

✓ Parkeak eta aisia guneak:

- Iturriak. Laubideko plazako iturria jadanik konponduta dago. Agirre-Etxeberriko parkean iturri berria dago. Itxita dagoenez beharbada ez zarete konturatu baina urte hasieran jarri genuen.
- Parkeetan aterpeak nahi dituzuela adierazi duzue. Interesagarria iruditzen zaigu proposamen hau. Zuekin elkarlanean zein eta nola estali aztertuko dugu.

✓ Kaleak:

- Musika Eskolako errotondan semaforoak jartzea. Gaur egun dagoen semaforoa beharrezkoa ikusten dugu, baina ez dugu semaforo gehiago jartzeko asmorik. Berez, arriskua asko murriztuko da Musika Eskola Agirre-Etxeberrira eramaten denean.
- Laubidetik Domingo Agirrera eskailerak konpontzea eta arrapalaren malda gutxitzea. Teknikoki oso zaila da hor behar den bezalako arrapala egitea. Horregatik azkenengo urteetan beste irtenbide batzuk bilatu dira Laubidetik eskolarako ibilbidea hobetzeko:
 - Goierri tabernatik gora: arrapala dago eta ingurua guztiz irisgarria da
 - Laubideko kioskotik gora: eskailera berriak egin ziren 2013 urtean
 - Bestalde 2012an Junetorri autobusa jarri zen martxan. Autobus honek hiru ikastetxeetan gelditzen da.

✓ Azpiegitureak:

- Urtatzako urtegia ez da Udalarena, enpresa pribatu batena baizik. Presa hondatuta dago eta konpontzea garestiegia omen da. Dena den, konturatu bazarete, noizbehinka mendiolanak egiten dira gune natural moduan berreskuratzeko. Graffitiak dagokienez toki arriskutsua iruditzen zaigu. Edozelan ere, horretarako, futbol zelaia inguratzen duen pareta erabiltzea proposatzen dizuegu, beti ere, alde zuzenetik toki zehatza eta irudiak gurekin adostuta.



**LEGAZPIKO
UDALA**



- **Azoka:** egia da haize-lasterrak daudela azokako arkupean. 2014an erabilera anitzeko espazioa bihurtzeko proiektua eta aurrekontua azertu genituen. Beharren arabera itxi edo irekiko den itxitura bat jarri nahi diogu. Horrela neguan ere jolasgune bezala erabiltzeko aukera izango duzue.



Bestetik ikusten dugu **ZUEN KONPROMISOAK** iazkoaren nahiko antzekoak direla: lurrera zaborrik ez botatzea, hormetan marrazkirik ez egitea... Badakigu kosta egiten dela pixkat, baina animatzen zaituztegu konpromiso horiek betetzera!!!

ESKERRIK ASKO! egin duzuen lanagatik eta aurtten bereziki **Kale Nagusiaren diseinuan parte hartzeagatik**. Ikastetxeetan azertu ondoren herriko Forora etorri ziren Batxilergoko 4 ikasle eta oso aberasgarria izan zen denontzako zuen iritziak dendarien, bertako bizilagunen, tabernarien... iritziekin kontrastatzea. Kale Nagusia oinezkoentzat egokitzeko lanak ekainean hasiko dira. Diru asko suposatzen duenez 2015ean erdia (farmaziatik elizara) konpontzeko asmoa dugu eta 2016an beste erdia.

Aurreratzen dizuegu, zuek egindako proposamengatik hauek hartuko direla kontuan:

- ✓ Zuhaitzak zenbait gune zehatzetan
- ✓ Jarlekuak U forman, borobilean... elkarrekin hitz egiteko
- ✓ Koloretako lurra
- ✓ Irristatzen ez den zorua
- ✓ Partxisa, xakea... dituzten mahaiak
- ✓ Lurrean txingoa
- ✓ Iturria
- ✓ Erosketak egiteko orgak. Proposamen hau dendariekin landuko dugu.
- ✓ 2016an eszenatokia jartzea komeni den ala ez aztertuko da.



Ez zen egokia ikusi Kale Nagusian elementu hauek jartzea:

- ✓ Estatua. Foroak ez zuen egokia ikusi
- ✓ Umeen jokoak, skate, patinetan ibiltzeko gunea... Egokiago ikusten da beste gune batean lantzea, adibidez Latxartegin.
- ✓ Bidegorria. Ez da bidegorririk jarriko. Laubideko oinezko kalean bezala bizikletak ondo ikusta egongo dira oinezkoen kalean, beti ere oinezkoa lehentasuna izanez.

Bestalde ez gaude ahaztuta **Latxartegi parkerako** egin dituzuen proposamenekin. Parkeren bat estaltzea aztertuko dugunean, gai hau ere landuko dugu.


Ikasturtea bukatzeaz dago eta laster oporrak datoz. Kanean jolasteko aprobe txatu, kaleaz gozatu... Legazpi **BIZITZEKO HERRIA** izatea nahi dugulako.

UDA GARAI AZ DISFRUTATU, MEREZI DUZUE ETA!!!!



GARAPEN IRAUNKORREKO ZINEGOTZIA,

Izenp.: Igor Urrate



ALKATEA,

Izenp.: Kepa Urzelai

